

EIBAR KIROL ELKARTEA, SAD

Batzarrerako deialdia

2016ko urriaren 13an zehaztutakoren arabera, “**Sociedad Deportiva Eibar, Sociedad Anónima Deportiva**” (“**Sozietatea**”) elkartearen Administrazio Kontseiluak Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrerako deia egiten du. Lehenengo deialdia 2016ko azaroaren 23an izango da, 19:30etan, Coliseo Antzokian, Merkatu Kalea 2, Eibar (Gipuzkoa). Hala badagokio, bigarren deialdi bat egingo da 2016ko azaroaren 24an, ordu eta leku berean, akziodunek jarraian zehazten diren gaiak aztertu eta ebatzi ditzaten.

GAI-ZERRENDA

Lehenengoa.- Presidente Andrearen txostena, Sozietatearen egoerari buruzkoa.

Bigarrena.- Aztertu eta onartu, egoki bada, Sozietatearen Urteko Kontuak, emaitzaren aplikazioa eta kudeaketa soziala, 2016ko ekainaren 30ean amaitutako ekitaldiari buruzkoa.

Hirugarrena.- Aztertu eta onartu, egoki bada, 2016/2017 denboraldirako aurrekontua.

Laugarrena.- Sozietatearen kontu-ikuskaria izendatu.

Bosgarrena.- Eskariak eta galderak.

Seigarrena.- Ahalmenak eskuordetu.

Zazpigarrena.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta, egoki bada, onetsi.

AKZIODUNENTZAKO ZERBITZU INFORMAZIOA

Deialdiaren iragarpena: Estatutu Sozialen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, Akziodunen Batzar Orokorrerako deialdiaren berri emango da Sozietatearen web gunean, gutxienez bilkuraren data baino hilabete bat lehenago, Kapital-sozietateei buruzko Legearen 176. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Akziodunak batzarrera bertaratzea: Estatutu Sozialen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, Batzarra burutuko den eguna baino bost lehenago, izendun Akzioen Erregistro Liburuan akzioak inskribaturik dituzten akziodun guztiak bertaratu ahal dira Batzar Orokorrerara, edo bere ordezkotza beste pertsona bati eman, nahiz eta pertsona hori akzioduna ez izan. Horretarako, akziodun bakoitzak Sozietateari asistentzia-txartela eskatuko dio, edozein momentuan, deialdiaren berri ematen denetik Batzarra hasi arte. Ordezkapena idatziz egiaztatuko da Batzar bakoitzerako. Mugapen hori ez da

aplikatuko ordezkaria denean ordezkatuaren ezkontidea, aurrekoa edota ondorengoa, ezta ordezkariak agiri publikoan emandako ahalorde orokorra duenean ere, ordezkatuak nazio-lurraldean duen ondare guztia administratzeko.

Dokumentazio erabilgarria: Kapital-sozietateei buruzko Legearen 272.2. artikuluan ezarritakoari jarraituz, edozein Akziodunek berehala eta dohainik jaso ditzake Batzarrak onetsi behar dituen agiri guztiak, bai eta, hala denean, kudeaketa- txostena eta kontu-auditoreek egindakoa ere.

Kapital-sozietateei buruzko Legearen 197. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Akziodunek informazio-eskubidea baliatu dezakete.

Notarioaren esku-sartzea: Kapital-sozietateei buruzko Legearen 203. artikuluan ezarritakoari jarraituz, jakinarazten da administratzaileek Notarioa bertan egotea adostu dutela, Batzarraren akta egiteko.

Batzar Orokorra: Era berean, akziodunei jakinarazten zaie Batzarra bigarren deialdian egitea aurreikusten dela.

Eibarren, 2016 urriaren 13an
Izpta. Amaia Gorostiza Telleria
Administrazio Kontseiluaren Presidentea